# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

| | PROPOSAMENAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|---|---|---|---|---|---|
| **INGURUNE FISIKOA** | | | | | |
| Aire zabaleko espazioak eta eraikinak | 11 | 6 | 5 | 1 | 1 |
| Garraioa | 7 | 4 | 1 | 1 | 0 |
| Etxebizitza | 9 | 3 | 3 | 2 | 2 |
| **GIZARTE INGURUNEA** | | | | | |
| Gizarte eta komunitate egitura | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| Herritarren partaidetza eta enplegua | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| Errespetua eta inklusioa | 2 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| **ZERBITZUAK** | | | | | |
| Komunikazioa eta informazioa | 9 | 0 | 9 | 0 | 0 |
| Gizarte eta osasun zerbitzuak | 10 | 4 | 5 | 0 | 0 |

| Guztira | 50 |
|---|---|



# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### INGURUNE FISIKOA

| HOBETZEKO PROPOSAMENAK | | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. ARLOA: Aire zabaleko espazioak eta eraikinak** | | | | | | | | |
| | **GAIA:** Parkeak eta aire zabaleko eremuak | | | | | | | |
| 1.1. | Plazak eta lorategien zaintza auzune bakoitzaren beharren arabera egokitzea. Zabala plazan adibidez, lurra ez dago ondo eta euria sartzen den lekuak ez daude ondo, deseginda daude. Karmengo plazan adokinak erdi apurtuta daude. Zuhaitzen sustraiak hazten dira. | Zabala plazan prozesu parte-hartzailea gauzatu da: Bizilagunak + San Roke zentroa + garajeen jabeak + udala. Zuhaitzen plakak eta banaketa: Udala +Lagunkoia | x | x | | | Alde zaharreko adokinak konpondu. Zabala plazan: 3 irizpide (ez dago gutxieneko adostasuna, Lagunkoia taldean proposamena egin zen). Hanketako makinak ez du zaratarik ateratzen. | **Zabala plazan**prozesu parte-hartzailea garatu da (2025) eta 2026. urtean konponduko da. Iturria, parke bio-osasungarriak eta umeentzako baliabideren bat jartzeko ez dago adostasunik. Bizilagunek ez dure zaratarik nahi. Umeek proposatu zuten nagusientzako parkea jartzea (belaunaldien arteko espazioa sortu). Bankuak eguzkitan eta gerizpetan. **Alde zaharreko** adokinak aldatuko dira (2025). **Garaturikobeste ekintza batzuk:**zuhaitzen plakak jarri (2025), zuhaitzen banaketa (2024, 2025). |
| | **GAIA:** Espaloiak eta kaleak | | | | | | | |
| 1.2. | Irisgarriak ez diren espazio publikoak irisgarritasun minimo bat betetzea: espaloiak konpontzea, batez ere alde zaharrean. | Udala | x | x | | | Obra gauzatzea. | Alde zaharrean (2025-2026). Barinan aparkalekutik soziedadera (2025). |
| 1.3. | Irisgarriak ez diren eraikin publikoak irisgarritasun minimo bat betetzea: sarreran oztopo fisikoak desagerrarazi. | Udala | x | x | | | Obra gauzatzea. Igogailua ezartzea. | Udaletxe zaharrean igogailua jarriko da alde zaharreko obrarekin batera (2025-2026). Printzipioz baiezkoa. |
| 1.4. | Kaleetako mantenua egitea. Adokinak konpontzea. | Udala | x | x | | | Obra gauzatzea. | Alde zaharrean (2025-2026). |
| 1.5. | Liburutegiaren espazioa handitzea. | Udala | | | | x ? | Proiektua definitzea. | Helburua agintaldian proiektua definitzea da. Artxiboa eta liburutegia bateratu behar dira. |
| 1.6. | Hilerriaren ondoan komun publiko bat ezartzea. | Udala | | | | | Komuna ezartzea. | Proiektu bat dago autokarabanentzako parking bat egitea eta horretan komun publiko bat jartzea sartzen da. Kostu handia dauka. |
| 1.7. | Gune estali gehiago sortzea. | Udala | x | x | x | | Gune estaliak sortzea. | Udazkenetik aurrera parte-hartze prozesu bat martxan jarriko da Plaza Barripen eta Zelaian (2025-2026). Aukera bat aterpea handitzea da. Lagunkoiatik ateratako beste aukera bat bankuak estaltzea da markesinak jarriz (2026-2027?). |
| 1.8. | Abuztuan kiroldegia zabaltzea. | | | | | | Abuztuan kiroldegia zabaltzea. | Abuztuan ezin da kiroldegia zabaldu, mantenurako derrigorrezko itxierak egin behar dira. Abuztuko azkenengo astean zabaldu zen (2024). Esleipenarengatik 3 aste itxi behar dira. |
| 1.9. | Igerilekuko uraren tenperatura hobeto erregulatzea. | Udala | x | | | | Sistema ezartzea. | Sistema berri bat jarriko da hau hobetzeko. Diruaren esleipena eginda dago. Ez da diru-laguntzarik lortu. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.10. | Igerilekuko aldageletako oztopoak desegitea. | | | | | | | Ezin da askorik egin. |
| | **GAIA:** Segurtasuna | | | | | | | |
| 1.11. | Argiztapena sustatu behar da hurrengo eremuetan: zebra-bideak, erreka izkinako bidea, Gaitaneko pasalekua, Xemein etorbidea eta kiroldegiaren inguruak. | | | | | | | Momentuan ez dago aurreikusita. Berrikusi 2026-2027? Urbitarten Alaitz ileapaindegi azpiko pasabidea argiztatu da (herritarren eskaera puntualei erantzunda). |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### INGURUNE FISIKOA

| HOBETZEKO PROPOSAMENAK | | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2. ARLOA: Garraioa** | | | | | | | | |
| | **GAIA:** Trafiko eta seinaleak | | | | | | | |
| 2.1. | Bariantean abiadura murrizteko ekintzak gauzatu. Biribilgune bat jartzea aztertu. | Bizkaiko Foru Aldundia | x | | | | Idatzi bat egin 2025 bukaeran (udala + Lagunkoia). Diputatuari aurkeztea (2025 bilera) | Eskualdeko beharrak identifikatu dira. Eskaera puntualak eskatzeko aukera dago. Eskaera horiek alkateaz gain, Lagunkoiak ere sinatu ditzake |
| | **GAIA:** Autobusa | | | | | | | |
| 2.2. | Peñaskal poligonoan autobus geltokia jartzea. | Bizkaiko Foru Aldundia | x | | | | Idatzi bat egin 2025 bukaeran (udala + Lagunkoia). Diputatuari aurkeztea (2025 bilera) | Eskualdeko beharrak identifikatu dira. Eskaera puntualak eskatzeko aukera dago. Eskaera horiek alkateaz gain, Lagunkoiak ere sinatu ditzake |
| 2.3. | Autobusaren ordutegia geldigune guztietan agertzea. | Bizkaiko Foru Aldundia | x | | | | Idatzi bat egin 2025 bukaeran (udala + Lagunkoia). Diputatuari aurkeztea (2025 bilera) | Eskualdeko beharrak identifikatu dira. Eskaera puntualak eskatzeko aukera dago. Eskaera horiek alkateaz gain, Lagunkoiak ere sinatu ditzake |
| 2.4. | Markinako garraio sare alternatiboa hobetzeko neurri batzuk proposatzen dira. | Udala | | | x | | Sahiesbidea egitea. | Sare alternatiboa: oinezkoentzako. |
| | **GAIA:** Bidegorria | | | | | | | |
| 2.5. | Bidegorri berezia egingo da txirrindularientzat. Markinatik Etxeberrira errepidearen ondoan, paraleloan. | Bizkaiko Foru Aldundia | x | x | | | Bidegorria egitea. | Martxan dago. |
| 2.6. | Eskualdeko bidegorrien lotura. Bide berdea. | Bizkaiko Foru Aldundia | | | | | | Foru Aldunditik bilera egin zen eta ez da aurreikusten lehentasun bezala. Aulestiko bidea, Berritxuko saihesbidea eta Artibai ibilbidea. |
| | **GAIA:** Oinezkoak | | | | | | | |
| 2.7. | Semaforoak behar dira. Guneren baten behar bada, semaforo bat kokatzea aztertu. | | | | | | | Ez dago adostasunik. Beste foro batzuetan aipatutako gaia izan da eta ez dago argi. |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### INGURUNE FISIKOA

| HOBETZEKO PROPOSAMENAK | | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **3. ARLOA: Etxebizitza** | | | | | | | | |
| 3.1. | Alokairua ordaintzeko eta etxe zaharrak mantentzeko udal dirulaguntzak sustatzea eta informazioa zabaltzea. | Udala | x | x | x | x | - Udaletik laguntza zerbitzua ematea. Zerga deskontua automatikoki aplikatzea. | Udaletik laguntza-zerbitzua eskaintzen du tramitazioak egiteko eta herritarrak Alokabidera bideratzeko. Alokabiden etxebizitza bat alokairuan badago, zergaren deskontua automatikoki aplikatzea erabaki da (2025). |
| 3.2. | Dirulaguntzen informazioa web-orrian zintzilikatzea. | Udala | | | | | - Dirulaguntzen informazioa web-orrian zintzilikatzea. | Sare sozialetatik difunditzen da baina web-orrian ez dago jarrita. |
| 3.3. | Alokabiden eta alokairuko laguntzen azalpenak eskaintzen dituzten hitzaldiak antolatzea. | Udala + Alokabide | x? | | | | - Hitzaldiak antolatzea. | Alokabideri hitzaldi bat emateko eskatu zaio haien eskaintza ezagutzera emateko. Gazteen emantzipaziorako aukeren inguruan beste hitzaldi bat egingo da. Erantzunaren zain. |
| 3.4. | Etxebizitza alokatzen duten jabeei ziurtasunak ematea. | Udala | x | x | x | x | - Udaletik laguntza zerbitzua ematea. | Alokabidera bideratzean ziurtasuna bermatzen da. Errolden inguruan dago gatazka nagusia. |
| 3.5. | Eraikin publiko hutsei erabilera ematea. Adibidez, kartzelan gerrako interpretazio zentroa jartzea nahi da eta bertako bulegoak ere erabilgarri jartzea. | Bizkaiko Foru Aldundia. | | x | | | - Kartzelean interpretazio zentro bat jartzea. Agrariako beheko partean herrian bazterkeria egoeran dauden pertsonek lo egiteko espazio bat egitea. | Kartzelean interpretazio zentro bat jartzea onartu da Bizkaiko Foru Aldunditik. Hala ere, Urarekin aztertzen ari da gaia. Beste proiektu bat Agrariako beheko partean herrian bazterkeria egoeran dauden pertsonek lo egiteko espazio bat egitea. Etxebizitza pribatu hutsen gaia ztertzen ari da. Datuen babesaren kontuarekin kontuz ibili behar da. Izen-abizenik gabe egingo da. 70 etxebizitza huts baino gehiago daude. Alokabidera bideratuko da. |
| | **GAIA:** Etxebizitza arloko informazioa herritarrentzat irisgarria izatea | | | | | | | |
| 3.6. | Etxebizitzen egoera. Etxe hutsen informazioa. | | | | | | - Hitzaldiak antolatzea. | Alokabiderekin hitzaldiak |
| 3.7. | Etxebizitzak hobetzeko laguntzak: irisgarritasun dirulaguntzak. | | | | | | - Hitzaldiak antolatzea. | Alokabiderekin hitzaldiak |
| 3.8. | Obrak egiterako orduan, ordaindu beharreko zergen azalpena eskaini. | | | | | | ? | A tiempok egiten dituen informeetan beharren identifikazioa egiten da baina gero ez da tramitaziorik egiten. Pendiente (aurtengo informea behatu). |
| 3.9. | Informazioa web-orrian zintzilikatzea. | | | | | | - Dirulaguntzen informazioa web-orrian zintzilikatzea. | Errepikatuta |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### GIZARTE INGURUNEA

| HOBETZEKO PROPOSAMENAK | | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **4. ARLOA: Gizartea eta komunitate egitura** | | | | | | | | |
| 4.1. | Eskualdeko pertsonen bakardadearen ikerketarekin, bakardadea leuntzeko ekintza zehatzak martxan jartzea. | Leire + udala + mankomunitatea. | x | | | | Aurkezpenak egitea. | Ikerketa bukatu da eta aurkezpenak egiten ari dira. Hurrengo aurkezpena maiatzaren 15ean izango da Osasun Mentalaren jardunaldi batzuetan (Markinan, Mankomunitateak antolatuta). Profesionalei bideratutako jardunaldia izango da. Komunikabideetan hainbat elkarrizketa egin ditu. **Gehiagorik??(Hurrengo bileran ekintzen bat hautatu).** |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### GIZARTE INGURUNEA

| HOBETZEKO PROPOSAMENAK | | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **5. ARLOA: Herritarren parte-hartzea eta enplegua** | | | | | | | | |
| 5.1. | Markina-Xemeingo elkarteak ezagutzera ematea eta partaidetza sustatzen duten jarduerak bultzatzea. | Elkarteak + Udala | | X | | | -Markina-Xemeingo elkarte guztien eskaintza eta informazioa jasotzen duen aldizkari eta katalogoa egitea. | -Feria bat antolatu. Elkarte bakoitzak bere stand-a izatea. Talde asko daude. Stand-eratara joatea ez da bideragarria ikusten. Feria formatua ez da egoki ikusten.<br>-Elkarteen ekintzek jasotzen duten aldizkaria egitea. |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### GIZARTE INGURUNEA

| HOBETZEKO PROPOSAMENAK | | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **6. ARLOA: Errespetua eta gizarteratzea** | | | | | | | | |
| 6.1. | Belaunaldien arteko jarduerak sustatzea. | Hezkuntza zentroak + Udala + Guraso elkartea | | X | | | -Hezkuntza zentroekin bilera gauzatzea.<br>-Erreka garbiketa egitea. | -Beti Jai elkartetik San Blas eta gaztaina ekintzak egiten dira.<br>-Proposamen berria (ez da egin): errezetak egitea.<br>-Beti Jaietik karta jokoak egiten saiatu dira, baina ez da lortu. Beti Jai elkartetik kanpo antolatu (sozidadeak, elkarteak, gaztetxea). Sozidade desberdinetan egin daitezke.<br>-Hezkuntza zentroekin programa bateratu bat egin. Zer egiten duten ezagutu, egoitzara bisitak egiten dituzte. Beste ekintza batzuk aztertu.<br>-Erreka garbiketa proposatu.<br>-Ikasturte hasieran hezkuntza zentroekin egon elkarlana zehazteko. Proposamen zehaztak eraman. |
| 6.2. | Umeentzako parkeetan pertsona nagusientzako jarduerak antolatzea. | | | X | | | -Parke osasuntsuak ezarri.<br>-Aterpea ezarri. | -Parke osasuntsuko prestakuntzak ezartzea (pedaloak adibidez).<br>-Aterpea ezartzea. Parke eztaliak. |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### ZERBITZUAK

| | HOBETZEKO PROPOSAMENAK | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **7. ARLOA: Komunikazioa eta informazioa** | | | | | | | | |
| 7.1. | Udal webgunea irisgarriagoa bihurtzea eta udalerriko informazio guztia bertan agertzea. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | - Egindako egokitzapen kopuruak. | 2 webgune daude, udala eta turismoa. Irisgarriagoa egiten ari dira. Agenda elikatzen ari dira. 2024ean marka berriarekin aldatu zen. Dena den, atal batzuk berrizten ari dira. Atal batzuk legeak markatzen ditu. |
| 7.2. | Komunikabideetan informazioa hobeto transmititzea eta egokitzea. Jarduera eta ekitaldiei buruzko informazioaren zabalkundea modu jasangarriago batean egin, mundu guztia enteratu ahal izateko. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | - Kanal kopura. Kanal bakoitzeko jarraiztaile kopurua. Aldiuzkari ale kopurua | -Jasangarria eta mundu guztia enteratzea ez doaz bat. Digitala eta papera konbinatu behar da. Agenda paperan banatzen da. Whatsappeko kanala dago.<br>-Aldizkaria paprean ateratzen hasi dira.<br>-Udal azpiko bitrinan kartelak egoten dira.<br>-Mankomuitatean informazioa zabaltzen da. |
| 7.3. | Sare sozialetara igotzen den informazioa, Whatsapp eta Telegram kanaletatik bidaltzea. Kultura egitarauaz gain, trafiko informazioa ere bidaltzea. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | - Abiso kopurua | Egiten da. |
| 7.4. | Jadanik erabiltzen diren komunikabideak berpiztea: Irratian Markinan egingo diren jardueren berri ematea, udal aldizkariaren maiztasuna handitzea eta auzoetako paneletan informazioa era erakargarriago batean ematea | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | | Egiten da. |
| 7.5. | Etxebizitzetako portaletan bertako bizilagunei eragiten dieten informazioa kartel bidez jarri. | Udaltzaingoa | | X | | | | Egiten da. |
| 7.6. | Udalerrian martxan dauden zerbitzu eta proiektuen infografia bisual eta bideo bitartez sare sozial eta udal aldizkarian zabaldu. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | - Infografia eta bideo kopurua. | Ezagutzera emateko zerbitzuak identifikatu |
| 7.7. | Hitzako kazetariari informazioa bidali eta publikatzeko eskatu. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) eta eragile bakoitzak | | x | | | | Egiten da. |
| 7.8. | Sare sozialetan igotzen den informazioa Whatsapp eta Telegram kanaletan konpartitzea. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | x | | | | Egiten da. |
| 7.9. | Aurrez aurre pertsona nagusiei telefonoa eta Whatsapp aplikazioa erabiltzen ikasteko tailer praktikoak burutzea. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | - Kzguneko ikastaro kopurua.<br>- Julenek emandako saioak.<br>- Foru Aldundiko ikastaroak | Egiten da. |

# MARKINA-XEMEIN LAGUNKOIA

## EKINTZA PLANA

### ZERBITZUAK

| | HOBETZEKO PROPOSAMENAK | ARDURADUNAK | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 | ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **8. ARLOA: Gizarte eta osasun zerbitzuak** | | | | | | | | |
| | **GAIA: Zerbitzu eta baliabideen ezagutza** | | | | | | | |
| 8.1. | Zerbitzu eta baliabideen gida PDF egin eta webgunean zintzilikatzea. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | X | | | | - Webgunean zintzilikatu. PDFn dagoela baieztatu. | Eginda dago. PDF Juleneri galdetu. |
| 8.2. | Baliabideen gida argitaratzea, praktikoagoa eta trinkoagoa izan dadin. | Udala (Julene, komunikazio arduraduna) | | X | | | - Gida inprimatzea. | Noiz behinka inprimatzen da. |
| 8.3. | Udaletxeko sarrerako jendeak gizarte zerbitzuetako eskema azaltzea. Horrela, herritarrei informazioa emango diote. | Mankomunitatea | | X | | | - Ezagutza orokorra izatea. Udaltzaingoa formatu | Mankomunitatea gertu egonda, ez da beharrezkoa ikusten. Onena Mankomunitatera bideratzea da. Infografia bat egin zen eta zabaldu zen. |
| 8.4. | Baliabide eta zerbitzuen gida azaltzeko eragile desberdinekin hitzaldiak egitea. | Mankomunitatea eta Beti Jai | | X | | | - Jubilatuen elkartean hitzaldi bat egin | Manokumitatean egin zen saioan gidako ekintza asko azaldu ziren. Jubilatuen elkartean hitzaldia egin daiteke. |
| | **GAIA: Osasun Zerbitzuak** | | | | | | | |
| 8.5. | Osasun-zerbitzuak beharren arabera handitzea. | Talde eragilea | | | | | - Zerrenda bat egin (beharrak identifikatu) eta idatzi bat egin | Mediku falta handia dago. Zerbitzuak kanpora bideratu dira. Ginekologoa Matienan. Pediatra berandu ematen ari dira. Ondarrun larrialdietarako ez dago medikurik |
| 8.6. | Arlo soziosanitarioan (Osakidetzatik) egiten ziren eskualdeko bilerak berriz ere egitea. | Mankomunitatea | X | | | | | Egiten da. |
| | **GAIA: Gizarte Zerbitzuak** | | | | | | | |
| 8.7. | Bakarrik bizi den pertsonen zerrenda sortzea da eta baliabideei buruzko informazioa eskaini, batez ere herri zaintza, telelaguntza eta etxez etxeko laguntza zerbitzuei buruzko informazioa. | Udala eta Mankomunitatea | | X | | | - Ekintza berrian identifikatu | Zerrendaren jarraipena urtero egiten da. Mankomunitatera bideratzen da eta harremanetan jartzen dira pertsonekin. Dutxa aldatzeko orain udalak obra egiteko tramitazioa lagundu du |
| 8.8. | Gizarte zerbitzuetatik txanda telefonikoak egitea. Askotan, jendeak ez du aurrez aurreko txandarik behar. | Mankomunitatea | | | | | - Ez da egingo | Ez dago horretarako baliabiderik. Etxeko zerbitzua izango dutenek telefonoa izango dute, baina txanda telefonikorik ez |
| 8.9. | 80 urtetik gorako pertsonei etxez-etxe bisitak egiten jarraitzea, etxea eta pertsona nola dagoen ikusi eta zerbitzuak azaltzeko. Baliabideak behar dira, bisita horiek modu pertsonalizatuan egin ahal izateko. | Udala | X | | | | | Egiten da. A tiempo enpresak egiten du. Su detektagailuak jarri eta balorazioa egiten da. |
| | **GAIA: Esperientzia Izapidearekin** | | | | | | | |
| 8.10. | BAKQ-aren erabileraren aurrez aurreko hitzaldi bat prestatzea. | Talde eragilea | X | X | | | - Kzguneko ikastaroak. | Egiten da. Kzguneko ikastaroak. |